

## / Nabarmentzekoak

- > HAP0aren aldaketa Portu Zaharreko etxebizitza turistikoak mugatzeko (2. or.)
- > "Auzotarren mosaikoa" izan da onarpen handieneko proposamena "Miren Larrea" Lehiaketako parte-hartze prozesu ez-loteslean (4. or.)
- > Patinaje artistikoa: Naroa Ruiz Monge, munduko txapelduna bere taldearekin Italian (4. or.)



**Kontzertua.** Hilaren 5ean, larunbata, 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, lieder emanaldia Vanessa Goikoetxea (soprano) eta Rubén Fernández (piano) bikotearekin. Sarrera: 5€.

**A-  
GENDA**

**Kontzertua.** Hilaren 12an, larunbata 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Donde rompen las olas" jazz-pop diskoaren aurkezpena. 5€.

## Giro bikaina, parte-hartze handia eta gertakari larririk ez uda honetan Getxoko jaietan

200.000 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte uda honetan Getxon ospatu diren jaietan: Paellak, San Inazio, Romo, Portu Zaharra eta Las Mercedes. Amaia Aguirre alkateak adierazi duenez, "parte-hartze handia eta gertakari larririk eza izan dira jaien ezaugarri nagusiak, eta giro bikainak eta belaunaldien arteko bizikidetzaren osasuntsuak egin dute Getxo, beste uda batez, festarako leku bikaina, bai herritarrentzat, bai egun hauetan bisitatu gaituztenentzat".

Getxoko jai-ereduari jarraituz, auzo bakoitzeko jai-batzordeek prestatu dituzte programak, eta Udalak dirulaguntzen bidez laguntzen du, baliabide ekonomiko eta materialak bere esku jarritz, baita udal-langileak ere, urte osoan zehar koordinatzeko. "Urtez urte aurrera egiten dugu komunikazioan, koordinazioan eta baliabideen kudeaketan", adierazi du Aguirrek. Azpiegituri dagokionez, 2024 honetan aurrerapausoa eman dira 3 bainugela publiko gehiago kokatuz (Algortako, Romoko eta Portu Zaharreko jaietan). Komun indibidualak, pixatokiak, ispiludun bainugelak eta komun egokituak dituzten aldi



baterako moduluak dira, ingurune seguruetan kokatuak, argiztatuak eta langileek zainduak. Gaueko autobus-linea getxotarrek gero eta gehiago erabiltzen duten zerbitzua da, jai-giroan etxera itzultzeko.

### Herri zaintza

Udaltzaingoaren kalkuluen arabera, 200.000 lagun inguruk hartu dute parte Getxoko udako jaietan. Metro Bilbaoren datuen arabera, 107.116 pertsonak (iaz 101.142 izan

ziren) erabili zuten metroa gure udalerrira hurbiltzeko.

Udalak ahalegin handia egin du polizia-agenteen kopurua handitzeko ospakizun horietan, eta bideozaintza prebentiboko sistemak jarri ditu. Horri esker, nabarmen murriztu da Algortako, Romoko eta Portu Zaharreko jaietako delituen kopurua (-%43,75), iazko 80 salaketatik 45era jeitsi baita. Arau-hauste penalen beharakada hori gorabehera, atxilotutako edo ikertutako pertsonen kopurua %28,57 igo da, 21etik 27ra. Udaltzaingoak eta Ertzaintzak elkarrekin eta koordinatuta egindako lanari esker, delinkuentzia-datuen jaitsiera orokorra %40,33koa izan da hiru jai horietan: 2024an 108 delitu salatu dira, eta iaz, berriz, 181. Paellatan 2024ko datuak ezin hobek dira: 0 delitu salatu dira.

Nabarmendu behar da, bideo-zaintzako sistemari esker, Udaltzaingoak hamar aldiz jardun duela, eta horiek argitzeko aukera izan duela, bai prebentzioz (borroka-gertakariak), bai gertakariak ebaztean.

## Arte Eszenikoen Jardunaldiak hasi dira

Getxoko Arte Eszenikoen Jardunaldien 42. edizioa izango da urriaren 3tik 24ra Muxikobarrin. Zikloak hainbat modalitate artistikotan aberatsa den programazioaz gozatzeko aukera eskainiko du, hau da, antzerkia, dantza, irakurketa dramatizatua... 13 ikuskizun eskainiko dira, familientzako zein helduentzako, Euskadiko konpainiekin (Kulunka Teatro, Malandain Ballet Biarritz, Porrotx eta Marimotots...) eta estatuko konpainiekin (Teatro Corsario...), baita izen handiko antzezleekin ere (Eguzki Zubia, Pepón Nieto, Eneko Sagar-doy, Eva Guerrero, Emilio Gutierrez Caba...).

Ostegunean, urriaren 3an, Ertza Dantza Konpainiaren *Moon Krad* ikuskizunarekin emango zaio hasiera ziklo honi, eta asteburu honetan, ostira-lean, hilak 4, 19:30ean, Eguzki Zubiak eta Txubio Fernández de Jaúregik *Confines* Pablo Viarren ikerketa eszenikoko lana taularatuko dute (sarrera: 10€); larunbatean, hilak 5, 20:00etan, *Kulunka* Teatrotik, maskara-antzerkiaren munduko erreferenteak, *Forever* (10€) aurkeztuko du,



familian inkomunikazioari buruzkoa, eta igandean, hilak 6, Anodino Teatrotik *Mamua* ezagutzera joan zen umea (6€) eskainiko du.

Programazio osoa: <https://labur.eus/11buP>

### Puntu morea

Eraso matxisten biktimetazko zuzeneko arretako puntu moreak lan handia egin du udalerriko jaietan; izan ere, gauero 50 pertsonarekin jardun du, batez beste, eta nabarmentzekoa da auzo bakoitzean parte hartzen duten agentee-kiko etengabeko lankidetzaren eta komunikazioa, hala nola jai-batzordeekin, talde feministekin eta Udaltzaingoarekin. Horrek lana, koordinazioa eta zaintza erraztu ditu.

Kasuren batean puntu morearen baten kokapena egokitzea pentsatu bada ere arreta-baldintzak hobetzeko, oro har lortu da gune horiek jaietako espazioetan integratzea, eta horrek erraztu egin du pertsonak gerturatzea, bai laguntza eskatzeko, bai informatzeko edo txapak eta eranskailuak eskatzeko. Presentzia fisiko bisualak erasoak saihesten laguntzen du, polizierekiko koordinazioa oso ona izan da, eta puntu morearen teknikariak komunitate-mailan ere koordinatu dira, jai-guneetako prebentzioa eta jarduna jai-batzordeekin eta mugimendu feministekin lantzeko. Horregatik, horrelako espazioak sustatzen jarraituko da Getxoko jai-esparruetan.



### URRIAK 3 OSTEGUNA

**Erakusketa.** Algortako Kultur Etxean (Villamonte), Diego Herrera Carcedoren "Gagauzia, minoría étnica en la estepa moldava". Urriaren 23ra arte. Bisita gidatuak: hilak 4, 11 eta 18. Informazio gehiago: <https://labur.eus/knGOG>

**Literatur topaketa.** Romo Kultur Etxean, 10:00etan, "Llegaremos a la vez" liburuaren aurkezpena, Ramiro Pinilla eleberrilaburreko saria 2023, Ignacio Lloret egilearen eskutik.

**Getxo Eszena. Arte Eszenikoen Jardunaldiak. Dantza garai-idea.** Muxikebarrin, 19:30ean, "Moorkrad" Erza Dantza Konpainiarekin. Sarrera: 8€.

### URRIAK 4 OSTIRALA

**Getxo Eszena. Arte Eszenikoen Jardunaldiak. Antzerkia.** Muxikebarrin, 19:30ean, Pablo Viarren "Confines", Eguzki Zubia eta Txubio Fernández de Jauregirekin. Sarrera: 10€.

**Kontzertua.** 20:00etan, Romo Kultur Etxean, "Film mitikoen soinu bandak" Andrés Isasi Musika Eskolako Flauta Orkestra. Sarrera dohainik.

### URRIAK 5 LARUNBATA

**Getxo Eszena kalean. Dantza.** 18:30ean, Areetako Geltokia plazan, "Aiuiri" Aukeran konpainiarekin. Sarrera dohainik.

**Getxo Eszena. Arte Eszenikoen Jardunaldiak. Maskara-antzerkia.** Muxikebarrin, 20:00etan, "Forever" Kulunka Teatrotarekin. Sarrera: 10€.

**Kontzertua.** 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Donde rompen las olas" jazz-pop diskoaren aurkezpena Malú Garay, Jose Luis Canal, Raúl Vera, Rober Caballero eta Blas Fernándezekin. Sarrera: 5€.

### URRIAK 6 IGANDEA

**Getxo Eszena. Arte Eszenikoen Jardunaldiak. Haur antzerkia.** Muxikebarrin, 18:00etan, "Mamuak ezagutzera joan zen umea", Anodino Teatrotarekin. Sarrera: 6€.

**Antzerkia. Emakumeak ezanan XIX. zirkuitua.** 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Pensar en alto". Sarrera: 3€.

### URRIAK 8 ASTEARTEA

**Kontatu erretratu hau.** 18:00etan, AJAN Eren egoitzan (Juan Bautista Zabala 6), Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gorakoentzat. Dohainik.

**Liburujaleak.** Irakurketa taldea familian, 18:00etan, Villamonte-

ko Kultur Etxean. Izenematea: 622 43 30 85. Egizuk antolatuta.

### URRIAK 9 ASTEAZKENA

**Kontatu erretratu hau.** 18:00etan, Romo Kultur Etxean, Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gorakoentzat. Dohainik.

**Liburu-aurkezpena.** 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Parideras de Tajuña"ren aurkezpena egilea Manuel Torralbaren eskutik. Gazteleraz.

### URRIAK 10 OSTEGUNA

**Getxo Eszena. Arte Eszenikoen Jardunaldiak. Dantza.** Muxikebarrin, 19:30ean, "Tierra de nadie" Eva Guerrerorekin. Sarrera: 10€.

**Txatxarrak.** 19:30ean, Romo Kultur Etxean, Garazi Basterretxeak gidatuta, testuak sortzeko tailerra. Egizuk antolatuta.

### URRIAK 11 OSTIRALA

**Kontularien kluba.** 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten helduen topagunea. Gazteleraz.

**Getxo Eszena. Arte Eszenikoen Jardunaldiak. Antzerkia.** Muxikebarrin, 19:30ean, "Artea" (euskaraz), Ramón Agirre, Joseba Apaolaza eta Asier Hormazarekin. Sarrera: 10€.

### URRIAK 12 LARUNBATA

**Getxo Eszena kalean. Antzerkia.** 18:30ean, Areetako Geltokia plazan, "La kermés del vermú" Gorakada Teatrotarekin. Sarrera dohainik.

**Getxo Eszena. Arte Eszenikoen Jardunaldiak. Dantza.** Muxikebarrin, 20:00etan, "Mosaïque" Malandain Ballet Biarritz taldearekin. Sarrera: 20€.

**Kontzertua.** 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Donde rompen las olas" jazz-pop diskoaren aurkezpena Malú Garay, Jose Luis Canal, Raúl Vera, Rober Caballero eta Blas Fernándezekin. Sarrera: 5€.

**Dantza plaza.** 19:00etan, Santa Eugenia plazan, herri-romeria tokiko Dantza taldeekin: Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola.

**XLI. Ibilaldi neurtua.** Irteera Algortako batzokitik. 08:00etan (nagusiak); 10:00etan (gazte- txoak, 10 urtetik beherakoak). Antolatzailea: Itxartu Taldea. Info: <https://labur.eus/XNh16>

### URRIAK 13 IGANDEA

**Getxo Eszena. Arte Eszenikoen Jardunaldiak. Antzerkia.** Muxikebarrin, 19:00etan, "La comedia de los errores" Pepón Nieto, Antonio Pagudo, Fernando Soto, Rulo Pardo, Avelino Piedad eta Esteban Garridoekin. Sarrera: 20€.

# HAPOaren aldaketa Portu Zaharreko etxebizitza turistikoak mugatzeko

Udalbatzak iraileko osoko bilkuran onetsi zuen behin betiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) aldaketa zehatza, ez zelako inolako alegaziorik aurkeztu. Ondorioz, hirigintza-araue-tako hiru artikulua aldatuko dira; Portu Zaharreko etxebizitza turistiko berriak mugatzeko (ondare historikoa babesteko, Europako jurisprudentziari jarraituz) eta Getxoko gainerako tokietan arautzeko. Puntu hori hasiera batean onetsi zen uztailean eta boto berdinekin atera da aurrera, hau da, EAJ/PNV, PSE-EE eta EH Bildu alderdien aldeko botoekin, eta PP eta Elkarrekin Podemos alderdien abstentzioekin.

EAJ/PNV eta PSE-EE alderdiek nabarmendu zuten, "helburua Portu Zaharra eta jabeen komunitateen bizikidetzak babestea da". PPK ez zuen uztailean emandako iritzia errepikatu nahi izan, orduantxe esan baitzuen ez datorrela bat Portu Zaharreko etxebizitza turistikoak mugatzearekin, ez baitu uste gaur egun arazoa direnik. Bestalde, EH-Bilduk, uztailean bezala, hauxe adierazi zuen "hizpide dugun aldaketa berandu dator, araudia zorrotzagoa izan liteke eta Portu Zaharraz gain Getxoko beste gune batzuk babestu"; hala ere, aldeko botoa eman zuen bere zuzenketa bat onartu zelako, eraikin jakin batean etxebizitza turistikoak hartzen duen metro karratuen erabilera-ehunekoa gehienez ere % 38koa izateari buruzkoa. Azkenik, Elkarrekin Podemosek esan zuen "onetsitako proposamenak ez ditu nahikoa neurri ezartzen herritarrek etxebizitza turistikoak dagokienez dituzten arazoak hobetu daitezzen".

## Beste gai batzuk

2024ko aurrekontuetarako udal-gobernuak (EAJ/PNV eta PSE-EE) eta PPK lortutako akordioaren ondorioz, udal-plantilla handituko da honako hamabi plaza hauek betetzeko: hamar udaltzain, gizarte-langile bat, eta Esku-hartze Komunitarioko teknikari bat. Gobernuaren ustez, "sindikatuak babesten duten akordioa da eta herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko premiari erantzungo dio"; PPK esan zuen "Udaltzaingoa handitzeak herritarrak aberastu eta lasaituko ditu, eta beste arlo ba-

tzuk indartuko dira, hala nola Gizarte Kohesioa eta Diruzaintza, herritarrei arreta hobea eskaintze aldera". EH-Bilduk esan zuenez, "euskduntze-prozesuaren aurkako eraso da, udaltzainen hamar plazatako bostek derrigortasun-datarik gabeko hizkuntza-eskakizuna baitute" eta Podemosen ustez, "Getxon segurtasun-falta areagotu izanari buruzko PPrent diskurtso alarmistaren aurrean makurtu da gobernuak, Udaltzaingoa Memoriak ere ukatu duelako hori".

Bestalde, 17.500 euroko diru laguntza onetsi zen Real Club Jolaseta klubaren alde, klubari laguntzeko Hockey Plus Espainiako Txapelketa antolatzen, zeina desgaitasun fisikoak eta intelektualak dituztenei zuzenduta. Pasa den asteburuan izan zen Jolaseta eta Faduran.

## Mozioak

Mozioen kapituluak, ez zen aurkeztutakoetatik bakar bat ere onartu, baina eztabaida EH-Bilduk planteatutakoan oinarritu zen, "Udalak Fiskaltzari bidaltzeko Algortako San Nikolas kaleko 11. zenbakiko eraikina legez kanpo eraisteari buruz bildutako informazio guztia, eta egokitzen jötzekotan dagokion salaketa aurkez dezan", besteak beste.

Gogoratu, Udalak zehapen-espeditentea ireki diola eraikin horretako 12 etxebizitzaren enpresa promotoreari, hasieran aurkeztutako proiektua-

rekin bat ez etortzeagatik. Proiektu horrek eraikinaren zati bat mantentzea erabaki zuen, eta horregatik urratu egin du alde aurretik emandako lizentzia. Espeditentearen instruktore bat ere izendatu da, eta hark akzio penalak ikusten baditu, Fiskaltzari jakinarazi beharko dizkio.

Oposizioko alderdiek irregulartasun posibleak antzeman dituzte prozesu horretan; Udal Gobernuak, berriz, bere jardueren legezotasuna defendatzen du eta oposizioari leporatu dio eragindako "zarata mediatikoa" eta alde aurretik epaia hartu izana.

Azkenik, aipatzekoa da EAJ/PNV eta PSE-EE taldeen aldeko botoekin eta EH-Bilduren abstentzioarekin ez zirela onartu aurkeztutako "premiako mozioak"; horietako bat PPK aurkeztu zuen, aipatutako eraikinaren eraispena ikertzeko batzordea eratzeko, eta bestea Elkarrekin Podemosek, beharrezkoak diren ezohiko lurralde-batzordeak deitzeko, aipatutako eraispena eta Hirigintza Arloaren funtzionamendua ikertzeko.

Jendearen galde-eskeen txandan, bi pertsonak hartu zuten parte, bata Zubilleta ikastetxeko guraso-elkartekoa, patioan karpa bat aldarrikatu duena (ikusitako beherago) eta bestea Tosu baserria mantentzearen aldekoa.



## Karpa bat Zubilleta eskolan, ikastetxeak eta udalak eskatuta

Eusko Jaurlaritzak karpa bat jarriko du urrian Zubilleta ikastetxe publikoko patioan, eskola-komunitatea eguraldi txarretik babesteko, frontoi zaharra kiroldegi bihurtuko duten obrek irauten bitartean. Obra horiek urtarilean amaitzea aurreikusten da. Karpa hori jartzea (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eskumena) ikastetxeko ordezkarien eskaria izan da, eta Udalaren laguntza izan du eskaera egitean. Mihaela Jilavu Hezkuntza zinegotziak nabarmendu duenez, "IGEak eta ikastetxeko zuzendaritzak egindako lanari esker, eta Udalak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin duen koordinazio onari esker, erantzun ahal izan zaio eskaera horri, eta horrek mesede egingo die ikasleei, obrek irauten duten bitartean espazio estalia eta egokia emango baitute".

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaurlaritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

**STAFF** Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza, Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: [getxokoudalaprensa@getxo.eus](mailto:getxokoudalaprensa@getxo.eus) Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Mediapost. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.


## “REC”, Getxophoto-ren hurrengo edizioaren gaia

Getxophoto Nazioarteko Irudi Jaialdia 2025eko ekainean ospatuko da eta bere gaia REC izango da. Antolatzaileek azaldu duteenez, “lehenik, PAUSA botoia sakatu genuen, ondoren PLAY botoia, eta oraingoan REC sakatzeko ordua ailegatu da. Honekin itxiko da Maria Ptqk bilbotarrak komisariatu duen trilogia”

### Nazioarteko Open Call

Zortzigarren urtez jarraian, Getxophotok mundu osoko artista bisualak gonbidatzen ditu bere hamargarren ediziorako proposatutako gaiari buruzko ikuspegia partekatuzera: REC. Urriaren 31ra arte, sortzaileek deialdi honetan parte hartu ahal izango dute (Picter plataformaren bidez), argazkigintzari, bideoari, instalazioari, performanceari, arte digitalari edo ikusizko beste edozein baliabideri buruzko proposamenekin.

Informazioa: <https://labur.eus/w2WBq>



## Andres Isasi Flauten Orkestraren kontzertua Romo Kultur Etxean

Andres Isasi Musika Eskolako Flauta Orkestrak, Mario Clavellek zuzenduta, kontzertua eskainiko du ostiral honetan, urriak 4, Romo Kultur Etxean. 20:00etan hasiko da eta sarrera doakoa izango da. Kontzertu honetan hamaika pelikula mitikoren soinu-banda interpretatuko dute, besteak beste, *Casablanca*, *El Señor de los Anillos*, *La Misión*, *Cinema Paradiso* edo *Casper*. Aldi berean, Ane Gorbeak eta Maider Gonzalok, orkestrako bi kidek, sortutako film horien jatorrizko trailerrak proiektatuko dira.

## “En la calle”, “Beste ahotsak, beste begiradak” zikloan

*En la calle* dokumentalaren proiektzioak hasiera emango dio urriaren 10ean, 19:00etan, Romo Kultur Etxean, Udalaren laguntzarekin, Ongi Etorri Errefuxiatuak eta Caósticak antolatutako *Beste ahotsak, beste begiradak* zine zikloaren V. denboraldiari.



David Maciánek zuzenduta, 19 minutuko iraupena duen film laburra da. Besteak beste, SOS Arrazakeria Gipuzkoak eta Harrerarako Herritarren Sareak ekoiztu dute, eta kalean dauden

gazte migratuen errealitatea erakusten du. Ondorengo solasaldian tokiko boluntarioen elkartetik parte hartuko dute (Pertsonalde, Sortarazi, San Nicolás Zabalik eta OEE). Sarrera librea izango da lekua bete arte.

## Moldava estepako gutxiengo etnikoari buruzko erakusketa

Urriaren 23ra arte, Diego Herrera Carcedo argazkilari dokumentalaren *Gagauzia, minoría étnica en la estepa moldava* argazki-erakusketa bisitatu ahal izango da Algortako Kultur Etxean (Villamonte).



Autoreak berak azaltzen duen bezala, gagauz herriak Turkiako herrietan du jatorria. Bere historiako garaiek eragin handia izan dute bere kulturaren; bere herrietan zehar ibiltzean etapa bakoitzaren arrastoa ikus daite-

ke. Bisita gidatuak izango dira urriaren 4, 11 eta 18an, 10:00etan eta 20:00etan. Erakusketarako sarrera doakoa da.



## “Aiurri”, Aukeran Dantza Konpainiarekin, Areetan

Aukeran Dantza Konpainiak *Aiurri* ikuskizuna aurkeztuko du larunbat honetan, urriaren 5ean, 18:30ean, Areetako Geltokia plazan, *Getxo Eszena Kalean* zikloaren barruan. Edu Muruamendiaren zuzendaritzapean, proposamen hau mugimenduari irekitzeko ariketa bat da. “*Dantza, mugimendua da. Mugitzea, funtsean, gorputz bat lekuz aldatzea. Lekuz aldatzean gorputzaren barruko guztia mugitzen da harekin: ametsak, beldurrak, minak eta itxaropenak. Gorputzak irekitasuna behar du mugitzeko: irekia egon mugimendua abiatzeko, irekia egon mugimendua jasotzeko*” diote. Dantzariak Ane Etxeberria, Laida Egaña, Unai Iraola, Maier Muruamendiaren, Nahikari Sanchez, Uxue Sanchez eta Danel Serrano izango dira. Sarrera doakoa izango da.



## “Pensar en alto”, Emakumeak eszenan zirkuituaren proposamen bat

*Emakumeak eszenan* zirkuituak hemeretzigarren edizioa beteko du aurten, eta igandean, hilak 6, iritsiko da Romo Kultur Etxera, *Pensar en alto* antzezlanarekin. Errezitaldia da; bidaia poetiko-ludikoa, askotan zentzugabea, interpreteei burutik pasatzen zaizkien gauzei buruzkoa: Elisa Maraño, Luz Mundiñano, M<sup>a</sup> Carmen Martínez eta M<sup>a</sup> Carmen Villegas. “*Burua jateko ekintza eszenara eramana. Hor ez dago ezer. Bizi eta mugitzen gaituzten ideiak. Itotzen eta itotzen gaituzten gogoetak. Gutxi pentsatutako unean garrasiak bezala lehertzen diren elezkulazioak. Kontraesanak akordeoi baten konpasean. Izan ere, gorputza eta burua ez doaz beti eskutik*”. Emanaldia 19:00etan hasiko da eta sarrerak 3 euro balio du.

## Zaintzaileentzako tailerren beste edizio baterako izen-ematea

Mendekotasun egoeran aurkitzen diren pertsonen etxekoei laguntza eskaintze aldera, Udalak taldeko akonpainamendu emozionalari, erlaxazioari, estimulazio kognitiboari, eta dolu prozesuan taldeko kudeaketa emozionalari buruzko tailerren beste edizio bat antolatu du. 2024ko urritik 2025eko ekainera izango dira eta helburua da zaintzaileentzako gunea sortzea, bertan zaintza lanetarako laguntza, baliabideak, tresnak eta teknikak eskuragarri izan ditzaten,

beren lana aitortzearekin eta laguntzearekin batera. Ohi bezala, ikastaroak doakoak izango dira ordutegi eta udalerriko auzo desberdinetan, Bizkaiko Foru Aldundiak mendekotasun egoeran egiaztatutako bizi-lagunen familiarrentzat.

Izen-ematea urriaren 9ra arte egongo da irekita, 690 366 748 telefono zenbakiaren bitartez (astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 18:00etara). Informazio gehiago [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus) udal webgunean aurki daiteke.



### Bisita Emilia Peña Etxeberriari bere 100 urtebetetzeagatik

Amaia Aguirre alkateak eta Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinegotziak Emilia Peña Etxeberria auzokidea bisitatu zuten pasa den astean, 100 urte bete zituela eta. Bilbon jaioa, Areetako bizilagun horrek 30 urte inguru daramatza udalerrian bizitzen. Alaba baten eta seme baten ama da eta lau biloba eta hiru birbiloba ere ditu. Agintariek ohiko Aixerrrotaren oroigarria eta lore sorta bat opatu zizkieten.



### Ereaga laranjaz tindatu zen TDAHa ikusarazteko

Ereagako hondartzan, joan den igandean, irailak 29, AHIDA Elkarteak antolatutako ekintza bat izan zen, bere 25. urteurrenean, TDAH-AGHAa ikusarazteko eta nahasmendu horri buruzko kontzientzia sortzeko, pairatzen dutenen eta haien senideen bizi-kalitatea hobetzeari begira. Erakundeak 500 pertsona bildu zituen kamiseta laranjak jantzita (kolore horrek Arreta falta eta Hiperaktibitatearen Nahaste hau irudikatzen du), eta horiek TDAH letrak osatu zituzten hondartzan. Ekintza kolektibo hori drone batekin grabatu zen, eta, bertan, besteak beste, Carmen Díaz Udaleko Gizarte Kohesioko arloko zinegotzia izan zen.

## “Auzotarren mosaikoa” izan da onarpen handieneko proposamena “Miren Larrea” Lehiaketako parte-hartze prozesu ez-loteslean

Herritarrek *Miren Larrea* muralismo deialdiaren barruan proiektu bat hautatzeko prozesu partehartzaile ez-loteslea amaitu ondoren, boto gehien jaso dituen lana *Auzotarren mosaikoa* izan da, Giorgos Gkareth Christou artistak proposatutako lana. Urrian zehar epaimahaia bilduko da, eta Kultur Etxera luzatuko du Areetako Geltokia plazako fatxadan egingo den behin betiko proiektuaren proposamena.



Herritarrek gehien bozkatutako lanak, autorearen beraren arabera, plazaren erreferente ezagunak indartzea du helburu, eta horretarako collage analogiko bat erabiltzen du, elementu arkitektoniko eta naturalen eskutik auzoan paseatzea proposatzen duena, baita eguneko eszenak ere, betiere sakontasunarekin eta altuerarekin jolastuz.

Proiektu honek 235 boto jaso ditu, ondoren geratu dira Aaron Diego Escauriaren *Ajedrez* (187 boto), Amaia Arrazola Otaduyren *La mirada de Miren* (172 boto), Luis Olaso Garraldaren *Cuatro estaciones* (77 boto) eta José Ramón Bañalesen *Urban jake* (55 boto). Bost lan horiek lehiaketako epaimahaia aukeratu zituen finalista, lehiaketara aurkeztutako 33 proposamenetatik abiatuta.

### Proposamen irabazlearen iragarpena

Lehiaketako epaimahaia urrian bildu ondoren, Getxo Kulturak hautatutako proiektua egilearekin kontratatzea erabakiko du. Behin obra egiten hasita, gehenez ere lau hilabeteko epea egongo da obra egiteko. Obra herritarrengana hurbiltzeko, egileak bitartekotza-prozesu bat egin beharko du, eta horren berri emango da unean-unean. Lehiaketako epaimahaia Getxo Kulturako zuzendaritzak, erakundeko bi teknikaririk, fatxadaren jabeen komunitateko ordezkari batek eta Antzezaleak eta Garrobi tokiko talde artistikoek izendatutako bi sortzailek osatzen dute.

## KIROLAK

### Patinaje artistikoa: Naroa Ruiz Monge, munduko txapelduna bere taldearekin Italian

Artistic Skating Cunit patinaje artistikoko talde kataluniarra, Naroa Ruiz Monge getxotarra partaide duena, show talde txikien munduko txapeldun izendatu da, duela gutxi Riminin (Italia) egingo dako lehiaketan.

Senior mailako *dance* modalitatean ere Kataluniako txapeldun izan zen Naroa Ruiz joan den ekainean. Bera hitzordu preziatuenean gorenera iritsi zen lehen euskalduna da.

Getxotarrak bere curriculumean Estatuko eta nazioarteko podiumak ditu, eta 2023ko urrian Tarragonara joan zen bizitzera talde horretako kide izateko.

